

Bezeroekin edukiko dugun harremana, alde batetik, automatizatu izango da aplikazio bat egingo dugulako, beraz, bezeroek ez dute gure beharra edukiko. Bestalde, nahiz eta zerbitzu automatizatu eduki, bezeroek, gurekin kontaktatu dezakete mugikor edota gmail bidez.

Gainera, gure aplikazioa eguneratzen joango gara liburu gomendatuenekin, pil-pilean daudenekin, berriekin... Horrez gain, liburuaren egunean, gabonetan eta mota hontako festak iristen direnean beherapenak txertatuko ditugu eta batzuetan zozketak egitera ere iritsi gaiten.

Gure bezeroen parte hartzea aplikazioan funtsezkoa da, beraien artean liburuak aldatzeko ahalmena edukiko dute, saltzeaz gain. Hori dela eta, liburuak trukatzeko gu arduratuko gara garraioa esakainiz beraien jabeengana iritsi daitezen. Hori gutxi balitz, lehen eskuko liburuak erosteko aukera ere edukiko dute. Bezeroen iritzia garrantzitsua denez, liburuei buruz komentatzeko duten guztia jar dezakete gure aplikazioan, beraien artean jakin dezaten duten iritzia liburuekiko.